



Ikerketa artistikorako bekak
BBK – Arte Ederren Bilboko Museoa

2024-2025

BBK Banku Fundazioak eta Arte Ederren Bilboko Museoa museoko bildumari buruzko ikerketa eta euskal artearen azterketa sustatzeko asmoz sortutako bi beka emateko lehiaketarako deialdia egin dute.

Oinarriak

1. Hautagaiak

Beka hau jasotzeko hautagai izan daitezke Europar Batasuneko herrialderen batean jaiok diren edo horietako batean ohiko bizileku egiaztatua duten eta eskatutako egiaztagiria aurkez ditzaketen pertsona guztiak.

2. Iraupena

Bekek urtebeteko iraupena izango dute gehienez, baina, ikerketaren garapenak hala eskatzen badu, epea luzatzeko aukera aztertuko da.

3. Diru kopurua eta ordainketak

Hileko 1.000 euroko diru-saria aurreikusten da, hiruhilekoen amaieran ordaintzekoak, BBK Banku Fundazioak eta Arte Ederren Bilboko Museoa oinarri hauetako 9.6 atalean aipatzen diren aurrerapenak onetsi eta gero.

4. Dokumentazioa

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, jatorrizkoan edo kopia legeztatuan.

4.1 Oinarri hauei atxikitako eskari orria beteta.

4.2 Eskatzailearen curriculum vitae.

4.3 Proposatutako ikerketaren memoria, proiektuaren, helburuen, metodologiaren eta kronogramaren deskribapenarekin (gehieneko luzera, 1.000 hitz). Dokumentu hau ez aurkeztea eskaria baztertzeko arrazoia izango da, eta, kasu horretan, ezin izango da dokumentazioaren aurkezpenean egindako akatsak zuzentzeko epea aplikatu.

4.4 Unibertsitatearekin edo kultura- edo museo- ikerketa lantzen duen erakunde batekin, Arte Ederren Bilboko Museoa salbuetsita, lotura profesionala duen pertsona baten gutuna, proiektua babesteko prest dagoela adieraziz.

4.5 Ikasketa-espeditentia eta Artearen Historiako, Geografia eta Historiako, Giza Zientzietako edo Arte Ederretako lizentziatura edo gradua. Baloratuak izango dira, beka jasotzeko eskatzen den titulu akademikoaren espeditentiaz gain, goi mailako beste ikasketa osagarri batzuk ere, baita proposatutako ikerketarekin zerikusia duten jardueretan izandako parte-hartzea eta Euskal Herriko hizkuntza ofizialen ezagutza ere.

5. Eskarien aurkezpena

Eskatutako dokumentazioa 2023ko azaroaren 24a baino lehen aurkeztu beharko da Arte Ederren Bilboko Museoa (aurrez aurre: museoko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara; posta elektronikoz: archivo@bilbaomuseoa.eus helbidean; edo postaz, helbide honetan: Arte Ederren Bilboko Museoa, Artxiboa, Museo Plaza 2, 48009 Bilbo).

Baztertu egingo dira epez kanpo aurkeztutako eskari guztiak, baita oinarri hauen 4. puntuan eskatutakoa betetzen ez dutenak ere.

Onartutako eta baztertutako eskari guztien behin betiko zerrenda museoaren webgunean ([hemen](#)) argitaratuko da azaroaren 30ean.

Baztertutako proposamenek hamar egun balioduneko epea izango dute, ebazpenaren argitalpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, aurkeztu gabeko dokumentazioaren hutsunea betetzeko.

6. Balorazioa eta ebazpena

6.1 Azterketa eta Balorazio Batzorde bat sortuko da; horrek egingo du azken ebaluazioa eta hautaketa, eta bekak emateko ebazpen proposamenaren txostena landuko du.

Batzordearen burua museoaren zuzendari Miguel Zugaza Miranda edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona izango da, eta batzordekideak honako hauek: Miriam Alzuri Milanés, Javier Novo González eta José Luis Merino Gorospe; idazkaria Mikel Urizar Bernaola izango da.

Batzordeak 60 puntuko gehieneko puntuazioarekin ebaluatuko ditu onartutako eskariak, honako fase hauek aintzat hartuta:

Lehen fasea: merituen balorazioa (30 puntu arte).

- › Meritu akademikoak (5 puntu arte): doktore titulua, egindako graduondoko ikasketak, argitalpenak, mintegiak eta ikastaroak.
- › Meritu profesionalak (5 puntu arte): praktikak museo-erakundeetan, hezkuntza erakundeetan zein erakunde kulturaletan, eta eskarmentu profesionala.
- › Proiektua (20 puntu arte): proposatutako gaiaren interesa museoaren beharren eta interesen ikuspuntutik begiratuta (10 puntu arte); argitasuna eta zorrotasuna argumentuen, helburuen eta baliabideen berri emateko azalpenetan eta kronograman (10 puntu arte).

Bigarren fasera igarotzeko, lehen fasean gutxienez 25 puntu eskuratu beharko dira.

Bigarren fasea: elkarrizketa (30 puntu arte). Aintzat hartuko dira curriculumaren defentsa, ibilbidearen egokitasuna proposatutako ikerketaren objektua kontuan hartuta, motibazioa, proiektuaren defentsa, sintesirako eta egiturarako ahalmena, eta proposatutako gaiaren ezagutza

6.2 Batzordeak hautagaiei diei egin ahal izango die hautaketa prozesuan zehar edozein argibide eskatzeko.

6.3 Batzordeak 2023ko abenduaren 20an emango du ebazpena, eta haren berri zabalduko da posta elektronikoz zein museoaren webgunean argitaratuta ([hemen](#)).

7. Beken zatiezintasuna eta bateraezintasuna

7.1 Bekak zatiezinak dira, eta norberaren izenean banako gisa aurkezten diren pertsona fisikoei emango zaizkie.

7.2 Ezin izango da beka hauetako bat baliatzen den bitartean beste ezein beka baliatu.

8. Lanen jabetza

8.1 Lanen jabetza beraien egileena izango da, baina ezin izango dituzte ez argitaratu ez eta erakutsi ere BBK Banku Fundazioaren eta Arte Ederren Bilboko Museoaren baimenik gabe.

8.2 Lanen argitalpenak edo erakusketak bekaren aipua lagun dutela egin beharko dira.

8.3 BBK Banku Fundazioak eta Arte Ederren Bilboko Museoak lan osoak eta lanen zatiak argitaratzeko eskubidea daukate, lanaren izaera edozein delarik ere, eskubide horren egikaritzearen berri aurretik emanda egileei. Lanak beren egoitzetako liburutegietan publikoaren eskura uzteko eskubidea ere badaukate.

9. Bekadunen betebeharrak

- 9.1** Deialdi honetako atal guztietako arauak bete.
- 9.2** Idatziz komunikatu beka onartzen dela hura berari ematea erabaki dela ofizialki jakinarazi eta gero (aurrez aurre: museoko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara; posta elektronikoz: archivo@bilbaomuseoa.eus helbidean; edo postaz, helbide honetan: Arte Ederren Bilboko Museoa, Artxiboa, Museo Plaza 2, 48009 Bilbo).
- 9.3** 2024ko urtarrilaren 1ean hasi bekaz baliatzen, aurretiko beste ezein konpromiso edo proiektuk eragotzi gabe beka baliatzeko emana zaion epean bere betebeharrari etenik gabe erantzutea.
- 9.4** Lana aurkeztutako proiektuari zorrotz lotuta egin.
- 9.5** Une oro izan BBK Banku Fundazioaren eta Arte Ederren Bilboko Museoaren eskura jada eginda dauzkan lanen oharrak, aurrerapenak eta emaitzak.
- 9.6** Arte Ederren Bilboko Museora hiru hilabetetik behin igorri, bekaz baliatzen den hasierako unetik zenbatzen hasita, hiruhileko horretan egindakoaren aurrerapen edo adierazpen bat, bi aletan. Horrelakorik ez aurkezteak 3. atalean zehaztutako ordainketak automatikoki bertan behera uztea eragingo du. Museoak beka jasotako pertsoneri deitu ahal izango die, haien lanari buruzko edozein argibide eskatzeko.
- 9.7** Bekaren amaieran, azken hiruhilekoko aurrerapenaren ordeztu lan amaitua entregatuko du, bi espaziotara mekanografiatuta, bi aletan, orrialdeak zenbakituta dituela eta koadernatuta.

10. Gertakariak

- 10.1** BBK Banku Fundazioak eta Arte Ederren Bilboko Museoak geroke helegiterako aukerarik gabe ebatzi ditzakete deialdi honen tramitazioan zein lanaren garapenean sor daitezkeen gertakariak.
- 10.2** Azterketa eta Balorazio Batzordeak eman gabe utz dezake, guztiz edo zati batean, beken esleipena.

Informazio gehiagorako: Mikel Urizar, Artxiboaren burua, Tel. 94 439 60 60, archivo@bilbaomuseoa.eus.

Eskaera fitxa

Ikerketa beken deialdiaren berri izan dut, eta nire izena eman nahi nuke. Eskatera honen bidez, oso-osoan onartzen dut deialdiaren oinarriak eta epaimahaiak emango duen erabakia. Era berean, zinpeko aitortpen izaera ematen diet formulario honetako datu guztiei.

Nortasun datuak

Izena

Abizenak

NAN / Pasaporte

Jaiotze-data

Helbidea

Nazionalitatea

Sexua

Posta elektronikoa

Telefonoa

Sinadura

Dokumentazioa

- › Curriculum vitae.
- › Espediente akademikoa.
- › Ikerketa lanaren memoria idatzia.
- › Museoko profesional / akademiko baten gutuna, berriaz adieraziz ikerketa proiektua edo lana babesteko prest dagoela.

Dokumentazioa itzultzea nahi izanez gero, nola egin adierazi behar da: _____

Nola ezagutu duzu beka programa hau?

Museoaren web orrian

Beste web orrien

Aurreko bekadunen bitartez

BBK web orrian

Sare sozialak

Ingurune akademikoaren bitartez

Inprimaki honetan emandako datu pertsonalak eta eskatutako gainerako agiriak Datuen Babeserako Erregistro Nagusian inskribatutako fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Zure datuak ematerakoan, berriazko baimena ematen diozu Arte Ederren Bilboko Museori datu horiek erabiltzeko, beken kontzesioa ebaluatu eta bazteko helburu bakar eta hutsarekin. Nahi baduzu, zure datuak kontsultatu, zuzendu eta baliogabetu ditzakezu, bai eta datu horien aurka egin ere. Horretarako, bezeroen arretarako gure bulegora etor zaitezke edo idazki bat bidal dezakezu Arte Ederren Bilboko Museoa Fundaziora [Museo Plaza 2. 48009 - Bilbao (Bizkaia)] zure nortasuna egiaztatzen duen agiriaren kopia bat ere bidaliz.

